



FACUNDO VITORIA ▶ LISBOA-DAKARREKO TIBAU TEAM LAGUNTZA MEKANIKOKO ARDURADUNA

## «4x4 ibilgailuen proben artean gogorrena da hau munduan»

**TOLOSA** ▶ Lisboa-Dakar lasterketan hartuko du parte tolosarrak laguntzaile lanetan

**IRAUPENA** ▶ 15 egunetan egongo da bosgarren urtez; «harea da probako zailtasunik handiena» ▶ 3

TOLOSALDEA ▶

**EHNA,**  
«egunero erabiltzeko tresna»

Bai Euskal Herriari herri ekimenak egin du aldarrikapena ▶ 7

TOLOSA ▶



E. EZEIZA

**Xurdinekin jolastu dute haurtxoek Leidorren**

Ume eta guraso ugari hurbildu zen emanaldira ▶ 3



## Asteburuan zehar bi sute jazo dira Leitzan eta Areson

**LEITZALDEA** ▶ Urte zaharra suteekin amaitu zuten Leitzaldean. Lehenengoa larunbatean jazo zen Leitzako Arrania mendian, 01:15ak aldera. Bigarrena, berriz, Aresoko Elutseder industriagunean, igandean, 18:30ak aldera. Biak ala biak erraz

kontrolatu zituzten Leitzako eta Altsasuko suhiltzaileek. Erre ziren lur eremuez gain, ez zen inolako kalterik izan. Luis Hernandezena suhiltzaileak adierazi duenez, «ziur gaude suteak probokatuak izan direla, baina ezin dugu ezer ez egin». NAJARA GARZIA ▶ 4

TOLOSALDEA ▶

## Urtezahar egunean ehunka lagun bildu ziren eskualdean presoan eskubideen alde

Aiztondon, Alegian, Altzon, Amezketan, Anoetan, Ibarran eta Tolosan egin zituzten aldarrikapenak ▶ 7



POLITIKA ▶

# Madrilgo aireportuko auto lehergailuaren gainean euren iritzia eman dute alderdiek

Gizartea itxaropentsu dagoela eta prozesuak eta elkarrizketak jarraitu behar dutela diote abertzaleek; prozesua etenda dagoela, berriz, UPNk eta PSE-EEK

## ERREDAKZIOA

Berrehun kilo leherkari inguru leherarazi zuen abenduaren 30ean ETAK Madrilgo Barajas aireportuko laugarren terminaleko aparkalekuan, duela bederatzita hilabete hasitako «etenaldi iraunkorra» bertan behera utziz. Salbamendu taldeetakoak leherketaren ondorioz galdu ziren bi lagun bila ari dira bizirik aurkitzeko ia itxaropenik gabe. Bi eskualde-etako alderdi desberdinen erreakzioak bildu ditu HITZAK.



Laugarren terminaleko aparkalekuan izan zen leherketa. HITZA

## BAKARTXO TEJERIA

EA

«PP izan da irabazi duen bakarra»



«Atzerapauso a izan da ekintza hau. Herritarrak ilusio-naturik, itxaropentsu zeuden, eta ez zen horretaraino iritsi behar, saihestu egin behar zen hori. Zailtasunak ikusten genituen, baina puntu horretara iritsiko zirenik ez genuen espero. PP izan da irabazi duen bakarra. PSOEk prozesua etenda dagoela esan du, baina ez luke hori gertatu behar, herriak prozesua nahi baitu».

## INAXIO AGIRRE

EZKER ABERTZALEA

«Elkarrizketarik gabe ez dago prozesurik»

«Gobernuaren eta ETaren arte-



ez dago elkarrizketa demokratikorik, eta elkarrizketa demokratikorik ez badago ez dago prozesurik. Prozesu demokratiko baten alde gauden guztion artean bide bat zehaztu behar dugu, indarkeriaren beharra ez dagoela erakusteko alde guztiei, proiektu politiko guztiak, independentzia barne, gauzatzeko bide demokratikoa badagoelako».

## ONINTZA LASA

EA

«Itxaropena dago, eta aurrera egin behar da»

«Madrilgo atentatua erabat gaitzesgarria da. Gure ustez, konprometuz eskatu behar da alde guztietatik; alde guztiek



jakin behar dute elkarrizketa behar dela konponbidea egin behar badu. Erantzukizunez jokatu behar da. Bestalde, itxaropen handia du Euskal Herriak eta aurrera jarraitu behar da, gizarteak konponbidea behar du. Horrelako gauzak gertatu arren, ezin da etsi, baina hori bai, elkarrizketa politikoaren aldetik soilik egin behar da aurrera. Ezin da esan elkarrizketa dela bidea eta horrelako ekintzak burutu».

## OSCAR RENEDO

PSE-EE

«ETAK armak utziko dituela esan behar du»



«Urtea amaitzeko jaso genezakeen albisterik txarra izan da: ETAK su-etena amaitzea,

abisatu gabe gainera, eta hilda-koekin. Demostratu dute bake-rik ez dutela nahi, beraz, prozesua amaitzat eman behar da. Orain, alderdien arteko batasun demokratikoa errepereratu behar da, eta terrorismoaren aurkako borrokara bueltatu. Justiziak egingo du bere lana. Gobernuaren aldetik ezingo da beste mugimendurik egin; ETAK egin behar duena da armak utziko dituela esan».

## SILBESTRE ZUBITUR

UPN

«Ez genuen itxaropenik prozesu honekin»

«Oso larria da gertatu dena, eta ez luke horrelakorik egin behar. Lehen ikusten nuen bezala dago prozesua; lehen ez genuen itxaropenik, ezinezkoa ikusten genuen. Guri iruditzen zaigu modu bakarra, eta horretarako une egokiena da, armak utzea litzatekeela. Horrelako talde batekin elkarrizketak hasteko eskubidea ematea ez da logikoa».

## JOXE MARI VIEITES

EB

«Su-etena haustearekin itxaropena hautsi dute»

«ETAK su-etena haustearekin, itxaropena ere hautsi du. Dena den, espero duguna da hori benetan ez gertatzea, eta alderdiek eta gizarteak lanean jarraitzea; alderdiek, bereziki, indarrak areagotu beharko dituzte horretarako. Bi muturrek,

hau da, PSOEk eta ETAK eman beharko dituzte benetako pausoak, eta gainerako alderdiek bultzada».

## PATXI ZABALETA

ARALAR

«ETAK bere hitza hautsi duela esan daiteke»



«ETAren komunikatua heltzen ez den bitartean etenik gertatzen da bake prozesua. ETAK bere hitza hautsi duela esan daiteke, eta ekintza horrek eskuinari mesede eta ezker abertzaleari kalte egin diola».

## ANTTON IZAGIRRE

NAZIO EZTABAIDAGUNEKO KIDEA

«Akordio prozesuan eten bat egon da»



«Madrilgo leherketak lehendik zeuden konpromisoak ez direla bete adierazten du. Akordio prozesuan eten bat egon da. Une honetan oso zaila izango da akordioak lortzea berrekitari, eta udal-hauteskundearen ondoren heldu beharko zaio berritza ere gaiari; alderdi politiko guztiek eman beharko dituzte urratsak. Hori bai, oso garrantzitsua izango da indar politiko guztiak aitortuak egotea».

## PEPI GOROSTIDI

ETXERAT-EKO KIDEA

«Zer egin dute hori ez gertatzeko?»



«Ikusi dugu 10 hila-beteetan ez dela Espainiako Gobernuaren aldetik ezer egin. Lehen baino okerrago gaudela orain pentsatzen dugu. Aurrera begira zer gertatuko den ez dakit, baina, zer egin da hori ez gertatzeko, eta zer egiteko prest daude hori ez gertatzeko? Hau konpontzea behingoz nahiko genuke».

## hilberriak ▶

## Maria Jesus Ugalde Perez

Andrea

Abenduaren 31n hil zen, 97 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.  
—Golán bego—



Zure ilobak: Marimi, Arantxi eta Luis, Maria Jesus eta Felix, Jesus Angel eta Maria Agles, Jose Ignacio eta Arntxa, Javier eta Mila, Encarna eta Candido.

Haren animaren alde ototz bat eskatzen dizuteeta arren etor zaitezela GAUR ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPI ETA ERDIETAN, Donostiako ERROSARIOKO ANDRE MARIA parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

IRURAN, 2007ko urtarrilaren 3an

▶ hilberriak  
▶ urteurrenak  
▶ eskertzak

**Gipuzkoan  
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

FACUNDO VITORIA ▶ LISBOA-DAKARREKO TIBAU TEAM LAGUNTZA MEKANIKOKO ARDURADUNA

# «4x4 ibilgailuen proben artean munduko gogorrena da»

Hilaren 5etik 22ra Lisboa-Dakar proban ariko da zortzi autoren laguntzaile gisa

ESTI EZEIZA

9.043 kilometro. Hori da Lisboa-Dakarren parte hartzen dutenek, 15 egunetan egin beharreko distantzia. Motoz, kamioiez nahiz kotxez egiten dute lasterketa, eta hauei laguntzen izaten dira Facundo Vitoria eta Tibau Teameko bere lankideak. Bost urtetan hartu du parte Paris-Dakarren eta aurtengoa ere han izango da.

**Laguntzaile lanetan aritzen zarete, baina zertan datza hau?**

Gu kamioiarekin joaten gara, etapa pare bat autoen atzetik egiten ditugu eta gainontzekoak albotik, edo kanpotik. Mitsubishi Ralliart taldearentzako piezak eramatean ditugu. Tebaur Teamek kamioiak uzten dizkigu zerbitzu hori egiteko.

**Mekaniko lanez gain batzuk ere egiten dituzue?**

Egunaren amaieran, kotxeak iristen direnean, beste auto batzuetan mekanikoak egoten

dira, eta guk kamioiaren kartolak ireki eta behar dituzten piezak ematen dizkiegu. Bestetik, piloto eta kopilotoentzako afora-eta prestatzen ditugu. Taldeko hirurok denetik egiten dugu.

**Zenbat autoren laguntzaile zarete? Nongoak dira hauek?**

Zortzi autorena, eta 52 lagun biltzen gara denera. Kotxeetako bat hemengoa da, Iruñekoak. Besteak berriz, Tailandiakoak, Brasilgoak, Txinakoa eta Errusiakoak.

**Zer moduz ikusten dituzu talde hauek?**

Joan den urtean Brasilgoa eta Errusiako bat nahiko ongi ibili ziren, hamabi eta hamahirugarren postuetan geratu ziren. Baina, hori baino hobeto gertatzea zaila da, ofizialak ibiltzen baitira hor aurrean.

**9.043 kilometro horren egun gutxitan, autoek nabaritutako dute...**

Bai, gainera lehiatzen ari denak lortu nahi duen postuaren



AITOR ELDUJAEN

arabera asko aldatzen da. Kontuan hartu behar da zer nolako ordezkotzako piezak dauden eta zenbat diru duen ordezkotzako piezetan gastatzeko. Kontuan hartu behar da ere, zenbateko abiadura eramatean duen, kotxeak gehiago edo gutxiago irauten baitu.

**Horrelako proba batean parte hartzeko zer behar da?**

Lehendabiziko gauza dirua da, diru asko behar da honetarako. Bigarrenik, prestaketa egon behar duzu horrelako proba bat egiteko, izan ere, nire ustez, 4x4 ibilgailuen arteko munduko probarik gogorrena da. Babesleak aurkitzea zaila da, ez baldin baduzu enpresa handien bat atzetik.

**Zein da probako zailtasunik handiena?**

Dudarik gabe harea da, dunak zeharkatzea asko kostatzen da eta batzbestekoak ateratzea zaila da. Hala ere, arazo handiena ordularia da, egunero iritsi beharra baita. Gero, gutxiago iritsi beharra baita.

**Ibilbidearen ezaugarrien arabera aldaketak egin beharko zaizkio autoari...**

Bai, kotxeari egunero egin behar zaio fundamentuzko azterketa bat, bestela han geratzen zara. Autoak asko sufritzen du.

**Bost urteko esperientzia duzu; gauzak asko aldatu al dira?**

Bai, mekanikoak hegazkinean joaten ziren garaian egin nuen behin, beste batean laguntza

azkarrean aritu nintzen, pistan joaten zenean ere bai, eta kopilotu ere izan naiz bi aldiz. Pixka bat ezagutzen dut, baina ez asko, proba zaila baita, urtetik urtera gauzak aldatzen dira.

**Aurtengoa nola ikusten duzu?**

Ez ditut oraindik autoak ikusi, baina badakit material oso ona dagoela.

**Zenbat denbora behar da horrelako auto bat prestatzeko?**

Hutsetik hasten bazara, hau da kaleko kotxe bat hartzen baduzu, bost edo sei hilabete gutxienez behar dituzu.

**Bidala hau zure zaletasunen parte al da?**

Bai, oporrak hartzen ditut hara joateko. Zaletasuna da hau. Baina urte asko daramatzat berdina eginez.

**Maila aldetik, urte hauetan hobetu egin al da?**

Bai, kalitatea normalean ona da. Hala ere, oso zorrotzak ari dira jartzen abiadurarekin.

Gero eta gutxiago uzten dute. Guk geuk ere GPS bat eramatean dugu, eta ezin dugu 90 km orduko abiadura gainditu, bestela zigor bat ipintzen baitigute.

**Lehendabizikoan ekonomikoa bakarrik da, eta bigarrenean, gidariari denbora kentzen diote. Istripuak ekin nahi dituzte horrekin.**

**Proba arriskutsua al da?**

Bai, baina hori bakoitzak jartzen du. Gainera, leku batzuetan zerbait gertatzen bazaizu, han ez dago beste ezer. Pista normalean helikopteroak bakarrik ibiltzen dira.

**Aurten Lisboatik ateratzen zarete, pisten aldetik asko aldatzen al da?**

Bai, desberdina da. Guretzat onena ingurutik ateratzea da luze egiten baita.

KULTURA ▶



## Xurdin eta bere lagunak Leidorren

E. Ezeiza ▶ Leidor antzokia jendez bete zen atzo Xurdin antzerki musikatu ikusteko. Istorioren arabera, inoiz ezagutu den basorik alaienean bizi dira Xurdin eta bere lagunak, egun guztian jolas berriak asmatzen eta jolasten pasatzen dutelarik. Dena den, Onto izeneko izaki maltzurak beraien zorientasuna zapuztu nahi du. Hala, haurrek, Xurdin eta bere lagunei lagundu zieten hori gerta ez zedin, eta gogoz oihut egiten zieten protagonistei, harriskuaz ohartarazteko, eta jolasen liburua ez lapurtzeko. E. EZEIZA



EZBEHARRA ▶



Areson suteak utzitako paisai beltza. A. UGOLA

# Leitzaldean bi sute izan dira asteburuan

### Leitzako eta Aresoko suteak probokatuak izan direla uste dute

**NAIARA GARCIA**

Azkeneko egun hauetan bi sute egon dira Leitzaldean, bata larunbatean, goizaldean, 01:15ak aldera Leitzako Arrina mendian eta bestea igandean, Aresoko industriale inguruan. Suteak erraz kontrolatu dituzte Leitzako eta Altsasuko suhiltzaileek, eta erretoak lur eremuak gain, ez da inolako kalterik izan.

Larunbat goizaldean, 01:15ak aldera, Leitzako suhiltzaileak abiatatu eta herrian ohikoa den bestala, sirena jo zuten. 12-13 bat suhiltzaile bildu ziren sua itzitzeko asmoarekin eta zortizek, urarekin nahiko sakar izazi zuten.

Igandean, berriz, iluntzeko 18:30ak aldera, bat baino gehiago izan ziren Eltuseder inguruan sua zabaldu zela konturatu zirenak, hasien artean, Arro baserritxoak, bertatik ikusten baitzen sutea. Kristina Saralegiak azaldu duen bezala, eguzki abisatzerako jada suhiltzaileek bazekien sua bazela Eltuseder inguruan, izan ere, Aresoko alkateak, Mikel Barriarrak esan duenez, «Mandri-ladarako langile bat oharatu zen sutea».

Igandean hego haizea gogor zebilen arren eta inguru horre-

tan ote asko dagoen arren, Jose Luis Hernandezena suhiltzaileak adierazi duenez, sutea pistaren ondoan izateak gauzak sakon erraztu zituen eta urarekin berehala itzazi zuten. Jose Mari Hernandezena suhiltzaileak bertan izan zen: «niri Arro-tik deitu zidaten eta irris gorenarekin dena zabaldua zegoen. 12 lagun inguru bildu ginen eta nahiko azkar bildu ginen».

Asteburu berean bi aldirio du sirenak herrian, baina Jose Mari Hernandezenak azaldu duenez, «dagoeneko ohituta gaude». Suteen jatorriari dagokionez, probokatuak izan direla argi daudakite eldizakiguru horrela izan dela, baina egin dugu ezer esan», argitu du Jose Luis Hernandezenak.

Jose Mari Hernandezenaren ustez, «normalean artzaiak izaten dira. Eguziek zakarrak erreteko basimena izan arren, askotan gauzez egiten dute, ardentzako belarra aterateko». Gainera, aurtien udazkena lehorta izan duenez, «askala baino leherago hasi dira aurteto».

Bi sute hauek gain, Eguberri Egunean, Leitzako sirena berriz jo zuten, Aresoko Patxakunsa etxean ere sute txiki bat izan baitzen, tximina ekonomikoak su hartu eta gero.

**ALEGIA ▶**

### Argazki zaharren egutegia doan udaletxean

Urte berria trisatearekin batera, Alegiko argazki zaharren osatutako egutegiak udaletxean izango dira eskuragarri. AKO aldirizariak, argazki taldekoek eta Zazpi Astoren Gaiñean bertso eskoletako elkarlanean egindako egutegia da eta dagoeneko herriko etxe guztietan ere banatu dituzte. Egutegiak doan izango dira.

**TOLOSA ▶**

### Intsaustiren omenez Xake Txapelketa

Hilaren San Intsaustiren oroimenez Aurrera elkarteak urtero antolatzen duen Errege-Itako Xake Txapelketa jokatu da. Txapelketa Aurrera elkartearen bertan izango da, 10:00etan aurrera. Bost minutuko partidetara jokatu da eta Tolosa nahiz inguruko edonork har dezake parte bertan; izena emateko Txapelketaren hasiera orduan elkartera hurbildu besterik ez du.

**ALEGIA ▶**

### Zazpie Pasa Pilota Txapelketa hastear da

El Zazpie Pasa Pilota Txapelketa martxan jarriko dute aurki. Binakako partida jokatzen parte hartzeko ohiko jokatzen eman behar da izena, sukera hilaren erdialdera arte dagoelarik. Bikoteko 10 euro ordaindu behar da eta partida guztiak Alegian jokatu dituzte, larunbat arratsaldean eta igandegozian.

**TOLOSA ▶**

### Breoganekin elkartrukea bertan behera

Udaberri Dantzari taldeak iragan abenduaren 16-17ko asteburuan Galiziar Breogan dantza taldearekin egiteko zuzen elkartrukea bertan behera geratu duen, galiziar taldeak itzuru bat izan zuelako. Udaberri dantzari taldearen asmoa eta gogoak elkartruke hain aurtun gauzatzeko da, arduradunek jakinarazi dituzte. Bestalde, elkartrukean antolatzen lagundu dioten gaituek, Udaberri Dantzari taldearen izenean, eskerririk berean adierazi nahi ditziete eta bereziki Tolosako Udalarari.

**TOLOSA ▶**

### Ikastaro berriak Usabalen, hilaren 8tik aurrera

Usabal kiroldegian honako ikastaroak izango dira: pilatesa, cycling-a, aroto dantza, aerobik-a eta igeriketa goiz, eguerdi nahiz arratsaldetan. Akuatym-a eta talchi-a gon edo arratsaldetan. 3. adinera gimnastika gozetan; haurtoentzako igeriketa; tempo-defentsa pertsonala, prestaketa fisiko intensiboa eta mantentze gimnastika. Hilaren 8tik aurrera: 4ra bitarte irango dute. Informazio gehiago, 943 53 64 00 telefono zembakian jaso dezakete interesatuek.



lazio txapelketako une bat. «12»

**Euskaltelen Internet Internet Berrira**

**KONKURTSUA ZAITEZ ERREKIN TORON W, HILEAN**

**30€ BAHARRIK ORDAINDUYA**

Arren, 2007ko urtarrilaren 31a baino lehen, 30€ baino gutxiago ordainduz, 30€ berrira itzultzen zaituzte. Errekin Toron W, Hilean, 30€ berrira itzultzen zaituzte. Errekin Toron W, Hilean, 30€ berrira itzultzen zaituzte.

**ORAIN, BILBO, 2-DEIAK DENONTZAT DIRA ZURETZAT**

Arren, 2007ko urtarrilaren 31a baino lehen, 2€ baino gutxiago ordainduz, 2€ berrira itzultzen zaituzte. Errekin Toron W, Hilean, 2€ berrira itzultzen zaituzte.

**euskaltel ZURETZAT**

**Deitu 900 840 200a edo zuzuz euskaltelen salbitariara.**

Orain, 2007ko urtarrilaren 31a baino lehen, 2€ baino gutxiago ordainduz, 2€ berrira itzultzen zaituzte. Errekin Toron W, Hilean, 2€ berrira itzultzen zaituzte.

**KIMETZ Zorionak da Uste Berri On!**

**GAZTE ARROPA**

**Maquía, 23 • TOLOSA • Tel.: 943 67 38 62**

**euskaltel ZURETZAT**

**Deitu 1717ra edo zuzuz Euskaltelen salbitariara.**

Arren, 2007ko urtarrilaren 31a baino lehen, 17€ baino gutxiago ordainduz, 17€ berrira itzultzen zaituzte. Errekin Toron W, Hilean, 17€ berrira itzultzen zaituzte.

PILOTA ▶

# Abel Barriola ez da izango Binakako Pilota Txapelketan

Oinatz Bengoetxea Patxi Ruizekin batera ariko da jokoan, jokaturiko lehen partida hilaren 6an izango da Iruñean

## ERREDAKZIOA

Atzo eguerdian aurkeztu zen BBVak Bilbon duen egoitza nagusian 2007ko Binakako Txapelketa, bertan izan zirelarik parte hartuko duten zortzi bikoteak, ligako ordezkariak eta Juan Jose Solar BBVako ordezkaria.

Eskualdeko pilotariei dago kienez, azken Lau t'erdiko Txapelketako txapeldunorde den

Abel Barriola leitzarrak ez du Binakako Txapelketan parte hartuko, askoren artean «harri duraz» jaso delarik berria. Oinatz Bengoetxea herrikidea, ordea, Patxi Ruizekin batera ariko da jokoan gainontzeko pilotarien aurka. Bikote honek jokaturiko duen lehen partida hilaren 6an izango da Iruñean eta Titin III eta Lasa III bikotea izango dute, hain zuzen ere, aurkari.

2007ko Binakako Txapelketan parte hartuko duten bikoteei dagokionez, honako hauek dira Asegartze enpresatik lehiari ariko diren pilotariak: Olaizola II - Otxandorena, Olaiola I - Beloki, Bengoetxea VI - Patxi Ruiz eta Leiza - Zearra. Aspe enpresako pilotarien artean Martinez de Irujo - Goñi III, Titin III - Lasa III, Gonzalez - Pascual eta Xala-Eulate izango dira jokoan ariko direnak.

AIZKORA ▶

# Finalurrerako txartela eskuratu du Arrospidek

Jon Rekondok saio bikaina egin zuen Urrezko Gazteen Binakako Txapelketan

## ERREDAKZIOA

Anjel Arrospide leaburuarrak Urrezko Aizkolariaren Binakako Txapelketako finalurrerako txartela eskuratu zuen pasa den larunbatean Mugertzarekin batera Asteasun jokaturiko saioan.

Joxe Etxebeste eta Luis Txapartegi izan zituzten aurkari Arrospide eta Mugertzak pasa den larunbatean. Bi bikoteek finalurrerako txartela zuten jokoan, bigarrenek lorturiko aldeari so egin ez gero, ordea, argi geratu da indartsu daudela baita sasoi ederrean ere, hiru minutuko aldea atera baitzuten aurkariei. Gauzak

horrela, finalurren izango dira Arrospide eta Mugertza.

## Jon Rekondo bikain

Urrezko Aizkolariaren Binakako Txapelketako finalurrerako saioaren baitan Binakako Gazte Txapelketako lehen saioa burutu zuen pasa den larunbatean Asteasun. Bertan izan zen Jon Rekondo leitzarrak saio bikaina egin zuen Erasunekin batera, Alkizalete II. eta Iker Gorriti garaitu baitzuen. Aipatu, egin beharreko lanak 17 minutu eta 40 segundutan egin zituztela, aurkariei lau minututik gorako aldea ateraz.

KIROLA ▶

# Urte zaharreko izerdiarekin agur esan zioten korrikalariak 2006. urteari

Adin guztietako korrikalariak hartu zuten parte San Silbestre eguneko krosetan, Villabonan, Lizartzan eta Tolosan



Lizartzako II. San Silbestre Krosean iaz baino jende gehiagok hartu zuen parte. HITZA

## M. SOROA

Aski ezaguna da eskualdean San Silbestre eguneko krosa. Mahaiaren inguruan afari oparoa egin aurretik eta mahats aleak janez hamabi kanpaikadekin igaro den urtea agurtu aurretik, bada kirola eginez urteari agur esaten dionik. Hala egin zuten kirolzale askok pasa den igandean Villabonan, Lizartzan eta Tolosan. Bertako herritarrek eta kanpotik etorritakoez San Silbestre Krosean hartu baitzuten parte.

Villabonan, 23. aldiz ospatu zuten Zumbeltz eta Urkamendi elkarteek antolatutako krosa. 16:00etan eman zioten hasiera eta Villabonako eta Zizurkilgo kaleetan barna aritu ziren korrika alebin, infantil eta kadetak. Benjaminak, berriz, Zumbeltz elkarte inguruan aritu ziren lasterka. Guztira 500 parte-hartzaile izan ziren lasterketan adinaren arabera distantzian aritu zirelarik korrika. Kilometro bakarra egin zuten gazteenek, infantilek eta kadeteek 3,5 kilometro eta senior eta beteteranoek, berriz, 7 kilometro. Aipatu, arrakasta handiko kros honen partaidea handituz doala urteko urte.

Bigarren aldia zen Lizartzan San Silbestre krosa ospatzen zena. Eguraldi ederrak lagunduta iaz baino partaidea gehiago izan zela azaldu dute antolotzaileek. 17:00etan eman zioten hasiera krosari herriko txikiak, helduen txanda

izan zen ondoren, herrian zehar 6 kilometroko zirkuitua egin zutelarik. Aipatu, korrika saioaren ondoren lasterkari eta ikusleek txokolatadaz dastatzeko aukera izan zutela.

IX. Elkartasun Krosean parte hartuz amaitu zuten urtea Tolosan. Samaniego-Orixe kirol batzordeak antolatuta, Orixa-Guabaz Gobernu Kanpoko Erakunde lagundu zuten lasterkariak. 16:00etan abiatu ziren Zerkausitik kirolari gazteenak, ondoren, adinaren arabera distantzia ezberdina korritu zutelarik gainontzekoek.

## SAILKAPENA ▶

## VILLABONA

## Gizonezkoak

1. Hasan Ait Chaou	22'50"
2. Patxi Urizar	22'52"
3. Jon Iturralde	23'05"

## Emakumezkoak

1. Isabel Dumall	28'18"
2. Leire Etxezarreta	28'17"
3. Ixar Zugasti	28'51"

## LIZARTZA

## Gizonezkoak

1. Youssef Tomi	
2. Jawad Samadi	
3. Harkaitz Sarasola	

## Emakumezkoak

1. Maitane Lopetegi	
2. Maider Balardi	
3. Nagore Arozena	

## iragarki laburrak ▶

## SALGAI

**Pago egurra.** Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. Interesatuak deitu 615 755 762 zanbakira.

**Autoa.** BMW M3a. Urdina. 286 zaldi. 1995koa. 153.000km liburuarekin. 18ko lllantak eta tebuak. Egoera oso onean. 14.000 euro. Deitu 943 65 41 43ra.

## LANA

**Banatzaila.** Baserriko produktua banatzeko pertsona bat behar da. Interesatuak deitu 943 68 22 14 zanbakira.

**Sukaldaria.** Sukalde laguntzaileak, eskoletarako, udalbegetarako. Deitu 943 44 48 66ra.

**Gidaria.** Gidariak erakunde publikoetarako. 943 44 48 66.

## TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Inketa.** Gabonetan zehar, bi egun ezberdinetan oparitzen dira erregaluak. Batzuei Olenzerok ekartzen dizkiete opariak, besteei erregeek. Noiz ospatzen duzu zuk opariren eguna? Sartu gure webgunean eta eman iritzia.

POLITIKA ▶



Anoetan egindako elkarretaratzea eta Alegian manifestazioaren ondoren herriko plazan ateratako irudia. HITZA



# Urtezahar egunean, presoan eskubideen alde ehunka lagun

Aiztondo, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Ibarra eta Tolosan, aldarrikapenak

IMANOL GARCIA

Urtezahar egunean ehunka lagunek preso politikoen eskubideen alde aldarrikapenak egin zituzten Tolosaldeko hainbat herritan. Manifestaziorik jendetsuena Aiztondon egindakoa izan zen. Aduna, Alkiza, Larraul, Villabona eta Zizurkilgo udalek deituta, 500 bat lagunek Villabonan hasi eta Zizurkilan amaitu zen ibilbidea egin zuten *Aiztondo bailara giza es-*

*kubide guztien alde* lelopean. Pankarta bost udalerrietako alkateek eta Etxerateko bi kidek eraman zuten. Beste manifestazioa Alegian egin zen. Bertan 100 lagun inguruk parte hartu zuten, *Hitza eta erabakia askatasunez* lelopean. Bi lagunek, solidarioz jantzita, Iñaki de Juana presoaren argazkia eraman zuten eta horren atzetik ikurrina joan zen.

Elkarretaratzea egin zuten Amezketan. Bertan 100 lagu-

nek hartu zuten parte. Aurrekoa dantzatu ondoren, pare bat bertso abestu zituen herriko gazte batek eta bost minutuko ixilunea egin zuten. Anoetan ere elkarretaratzea egin zuten *Estatus politikoa orain, Euskal presoak Euskal Herrira*, lelopean. 80 lagun inguruk hartu zuten parte. Iñaki de Juana presoarekin daramaten «politika ankerra» salatu zuten eta hurrengo Gabonetan «gure artean izango ditugunaren itxaro-

pena» agertu zuten. Altzoan ere elkarretaratzea egin zuten Urte Zahar egunean.

Ibarran, elkarretaratzea egin zuten 65 lagunek *Presoen eskubideekin ez da jolasten, baldintza demokratikoak orain* lelopean. Eguerdian, topa egin zuten 40 lagun inguruk preso eta iheslarien alde. Tolosan ere, presoan eta iheslarien alde 60 pertsona inguruk topa egin zuten, beraien eskubideak aldarrikatuz.

IRURA ▶

## Merienda antolatu dute gaurkorako

Eguberrietako egitarauaren baitan, gaur, 17:30ean, Trinteketan merienda antolatu du Udalak, musika eta dantzaz alaitua. Bihar, antzerki irakurria egingo dute herriko haur eta gaztetxoek eskainia.

ALKIZA ▶

## Ostatu jatetxearen kudeaketa lehiaketa martxan

Alkizako Udalaren jabetzakoa den Ostatu taberna-jatetxearen zerbitzu publikoaren zeharkako kudeaketa lehiaketa bidez esleitzeko kontratua arautuko duen plegua onartu du udal batzarrak. Modu honetan, eskaintzak aurkezteko epea otsailaren 2ra arte luzatuko dute. Beharrezko informazio eta dokumentazioa udaletxeko idazkaritzan bulego orduetan eskuratu ahal izango dira.

TELEFONOAK ▶

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
  - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
  - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
  - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
  - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
  - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
  - ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
  - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
  - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
  - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
  - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
  - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
  - ▶ **Tolosa.**
    - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
    - ▶ San Esteban: 006800
    - ▶ Gernikako arbola: 006900
    - ▶ Amarozk disp.: 672637
    - ▶ Asunzio klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
    - ▶ DYA: 672536
    - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
  - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

EHNA ▶

## EHNA «egunerokoan erabiltzeko tresna» dela aldarrikatu dute

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Bai Euskal Herriari herri ekimenak Gabonetan ere EHNAren erabilera aldarrikatu du. Hala, Tolosan abenduaren 23an informazioa zabaldu zuten, egun hori *Erabili Eguna* bezala izendatu baitu herri ekimen honek. «EHNA egunerokoan erabiltzeko tresna da. Adibidez erosketak egiterakoan eta autoari gasolina botatzerakoan», adierazi zuten ekimenekoek. Tolosaldeko komertzio eta gasolindegietan EHNA normaltasunez erabiltzen dutela azaldu zuten. Baita haurtzaindegi batean izena emateko ere.

Herri ekimenak Euskal Herria nazio bat dela defendatzen dute. «Gure herrian garen bezala agertu aldera eskubidea

dugu, inposaketarik gabe. Euskal herritarrek bagara, zergatik agertu behar dugu NAN espainiarra?», diote. Erabileraren aldeko deia luzatu zuten: «Euskararekin bezala, tresna izateak ez du balio erabiltzen ez bada. Horregatik, dei egiten dizuegu EHNA egin eta erabiltzera».

Herritarrei EHNAren tramitazioa non eta noiz egin daitekeen ere gogoratu zieten. Adun, Iruran, Alegian, Orendainen, Orexan eta Leaburun egunero-egunero egin daitezke udaletxean; Villabonan, hileko bigarren larunbatean, Kultur Etxean; Asteasun, hileko azken ostiralean udaletxean; Anoetan bi hilabetero udaletxean eta Ibarran bi hilabetero bigarren asteko larunbatean udaletxean.



EHNA egin eta erabiltzeko deia egin zuten Tolosan. HITZA



Lagun bat erosketak egiten EHNAren. HITZA

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Irura.** Trinketean, 17:30etik aurrera, merienda musika eta dantzaz alaitua.  
**Alegia.** Haurrentzako zine-klub saioa, Gaztetxean, 17:30ean, *Momo* filma.

**ERAKUSKETAK**

**Amezketak.** Hilaren 7ra arte ikusgai eta salgai izango dira Maite Gurrubaga margolariaren margolanak, Amezketako tabernan.  
**Tolosa.** Maria Jose Rekaldere eskultura erakusketak ikusgai da Aranburu Jauregi urtarriaren 20ra arte.  
**Tolosa.** Hondakinen Ingurugiro erakusketak ikusgai izango da hil honen 13a bitarte Aranburu Jauregian.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leitza.** Erbiti, O, Lizarraga, 7. 112.  
**Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.

**IRRATIA**

**Txolarre irratiak (107.5, 101.2 FM)**  
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepeaso, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotza* (errepikapena).  
 20:00-21:00. *Irauli uhinak*.  
 21:00-23:00. *Bide okeretik*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Tontorretik urteari ongietorria

**TOLOALDEA ▶** Ehunka lagun urtea behar bezala hasteko Uzturre mendira igo ziren herenegun; festa giroa nagusi izan zen gailurrean

**ERREDAKZIOA**

**U**rte berria nola hasten den garrantzitsua izaten dela diote, gero horren arabera izaten baita urtea bera ere. Hala, hasiera emateko modu desberdinak hautatzen ditu jendeak, parranda eginez, oporretara joanez eta mendira igoz, esaterako. Azken aukera honek tradizio handia izan ohi du gurean, mendizale askok botak jantzi eta mendian gora hasten baitute urtea.

2007a ez da salbuespena izan eta halaxe egin zuten Uzturreko gailurra aukeratu zuten Tolosaldeko ehunka lagunek. Behin tontorrera heldu zirenean, motxilan eramandako txanpaina eta jakiak dastatu zituzten eta elkarrekin argazkia atera zuten.



Herenegun Uzturre mendira igo ziren mendizale batzuk, tontorrean, Txindoki atzean dutela. HITZA

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
**Aitor Aguirre Artola (Ibarra).**  
 Atzo 2 urte. Muxuak familiarren partetik.



**URTE ASKOAN**  
**Irene Plazaola (Tolosa).**  
 Atzo 5 urte. Muxu handi 1 Aitor, aitabxo eta amabon partetik.



**URTE ASKOAN**  
**Eider Tejeria (Gaztelu).**  
 Gaur 6 urte. Zorionak eta muxu handi 1 etbeokoen partetik.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- ▶ HITZaren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZaren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

**hitza**  
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberrriak...

## aukerak zabaltzen

**3G**

**LG KU311**

Besta handakoa  
 1000mAh  
 1000mAh  
 1000mAh  
 19€

**3G**

**Sony Ericsson K610**

Besta handakoa  
 1000mAh  
 1000mAh  
 1000mAh  
 36€

**Datanis S.A.**  
 INFORMÁTICA Y COMUNICACIONES

San Francisco, 19  
 Tolosa  
 ☎ 943 698 126

**EUSKALTELEFONOEN** **en Barnekoare Ofiziala**